

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA  
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

### 5307

*174/2019 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia erakundeari baimena ematen diona Sprilur SA sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzeko, Sprilur SA sozietatearen estatutueta 5. artikulua aldatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasun zuzeneko akzioen ordezkari baimena ematen diona lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egiteko.*

Sprilur SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2019ko ekainaren 25ean egindako bileran, erabaki zuen Akziodunen Batzar Orokorrari sozietatearen kapitalari 7.400.000 euro gehitzeko proposamena egitea.

SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak 2019ko ekainaren 26ko bileran erabaki zuen Eusko Jaurlaritzari eskatzea baimena eman ziezaiola, EAEko aurrekontuak onartzeko 5/2017 Legearen 5.c) apartatuari jarraikiz, agentzia horrek berak parte har zezan Sprilur SA sozietatearen kapital-gehikuntzan. Guztira, 7.400.00 euro harpidetuko dira, eta hori % 100eko partaidetza izango da. Eragiketa horren ostean, % 94,58koa izango da SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren parte-hartzea enpresa horretan, eta % 5,42koa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren parte-hartzea.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110.1 artikuluan ezartzen denez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da dekretu hori; baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Kapitala ordezkatzeko duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuan, non eta ez diren doan eskuratzen, nahitaez adieraziko da sozietatearen xedea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratze horretan zuzenean nahiz zeharka izango duen partaidetzaren ehuneko ere.

Sprilur SA sozietatearen xedea honako helburu hauetakoren bat edo batzuk gauzatzea da, betiere industria-erakinak eta lurzorua sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean:

a) Azterketak egingo ditu, haietan edozein motatako hirigintza-plan eta -proiektuak jasoz. Bere zeregina izango da, halaber, plan eta proiektu horiek izapidetzeko eta onartzeko hirigintza-arloan indarrean dauden legeen arabera dagozkion zereginak gauzatzea.

b) Industria-lurra prestatzeko egin behar diren hirigintza-jarduerak gauzatuko ditu; haien artean, azpiegitura- eta hiritze-lanak, zerbitzuen horniketa, eta hirigintza-planeamendua gauzatzeko egin beharreko gainontzekoak.

2019ko azaroaren 18a, astelehena

c) Industrien kokaleku izango diren eraikinak eta instalazioak egiteko beharrezkoak diren eraikuntza-jarduerak egingo ditu, bai eta hirigintza-planeamenduan aurreikusten den ekipamendu komunitarioa jartzeko behar direnak ere.

d) Egiten dituen hirigintza- eta eraikuntza-jardueren ondoriozko obra eta zerbitzuen kudeaketa-, ustiaketa- eta mantentze-lana egingo du.

e) Bere xedea betetzearren, sozietateak interes bereziko enpresen kapitalean parte hartu ahal izango du, kasuan kasurako zehazten diren baldintzetan.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 5ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Sprilur SA sozietate publikoan dituen titulartasun zuzeneko akzioen ordezkariari, hain zuzen ere izapidetzen ari den kapital sozialaren gehikuntzan akzioen lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egiteko Administrazioaren izenean. Gehikuntza hori 7.400.000,00 eurokoa da.

2. artikulua.– Baimena ematea SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari Sprilur SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko. Gehikuntza 7 milioi eta laurehun mila eurokoa da (7.400.000). Baimena ematen zaio, halaber, aipatu partaidetza ordaintzeko, harpidetza egiten duen unean. SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak % 94,58ko partaidetza izango du Sprilur SAn.

3. artikulua.– Baimena ematen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren nahiz SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren titularitatekoak diren akzioen ordezkariari Sprilur SA sozietatearen estatutuen aldaketa onar dezaten kapital-gehikuntzaren ondorioz.

4. artikulua.– Sprilur SAren estatutu sozialen 5. artikuluaaren 1. apartatua honela idatzita geratuko da sozietatearen organo eskudunek onartu ondoren: «Berrehun eta hirurogeita bederatzimilioi zazpiehun eta laurogeita hamazortzi mila eta zazpiehun (269.798.700) eurokoa da kapital soziala, bi milioi seiehun eta laurogeita hamazazpi mila bederatziehun eta laurogeita zazpi (2.697.987) akziotan zatituta; akzio bakoitzak ehun euroko (100,00) balio nominala du, eta akzioak zenbakituta egongo dira 1etik 2.697.987ra, biak barne, erabat harpidetuta eta ordainduta».

#### AZKEN XEDAPENA

Onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.